


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOIUNTURARI BURUZKO INDIZEA (EKI), 2013ko 3. HIRUHILEKOA

Euskal AEko eraikuntzaren sektorea %18,1 gutxitu zen 2013ko hirugarren hiruhilekoan

Etzegintza %21,1 gutxitu zen eta Obra Zibila %12,4

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2013ko hirugarren hiruhilekoan, lan egutegi homogeneoan eta urte artean %18,1 nominala murriztu zen Euskal AEko eraikuntza jardura.

Urtaroen eragina zuzendu eta gero, 2013ko hirugarren hiruhilekoan eraikuntza sektorea %0,2 murriztu zen bigarrenaren aldean.



Eraikuntza sektorearen jaitsiera Etzegintzako azpisektoreari -urte arteko %21,1eko jaitsiera izan baitzuen-, eta Obra zibilekoari -%12,4koa- zor izan zitzaien.

Hiruhilekoen artean, 2013ko hirugarren hiruhilekoko sektoreko jardura aurrekokoarekin alderatuz gero, Etzegintzak bilakaera negatiboa du, %4,5, baita Obra Zibilak ere, %8,4, 2013ko bigarren hiruhilekoaren aldean eta urtaro-eraginak zuzenduta.

Eraikuntzako enplegua %2,7 jaitsi zen 2013ko bigarren hiruhilekoaren aldean.

1. taula: Eraikuntzaren Koiunturako Indizea Euskal AE 2013ko 3. hiruhilekoa. Aldakuntza tasak (%). Behin-behineko datuak

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	13 2.hir / 12 3.hir	At / At-1 (1)	13 3.hir / 13 2.hir	13 2.hir / 13 1.hir
Produkzioaren indizea	-18,1	-19,6	-0,2	-7,4
Eraikuntza	-21,1	-21,3	-4,5	-4,2
Obra zibila	-12,4	-16,3	8,4	-13,1
Landunen indizeak	-	-	-2,7	-3,3

(1) t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Euskal Aeko Eraikuntzaren koiunturako indizea. (EKI)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturari buruzko indizea (EKI); prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturari buruzko indizea (EKI); datu-bankua